

Azoka bereziak

Gure inguruan eta hortik kanpo ere, azoka ugari ditugu. Jatorriz nekazariak herrigunera hurbiltzeko eta barazkiak zuzenean saltzeko beharretik sortu ziren. Baina, denborarekin ekitaldi eta formatu berriak ikusten ari gara: salerosketa jardueraz gain, landa-ingurunearen sozializazio eta dibulgazio guneak bilakatu direnak, hain zuzen ere.

Udazken hasieran egiten den azokarik interesgarrienetakoa Zeraingo Azoka Ekologikoa da, aurten 20 urtetxo beteko dituenak. Azoka honetan, produktu ekologikoen ekoizle-postuez gain (baratzezainak, frutazainak, erlezainak,...), artisau ugari aurkitu daitezke. Umeentzat baratze-lantegiak egin izan dira: lur sail bat prestatu eta hurrengo udazkenara arte zaindu behar izaten dute; kremak egiteko lantegiak... Azoka aurretik 15 egunetan zehar hitzaldiak ere ematen dituzte. [Zerain Dezagun](#) eta Gipuzkoako Biolurrek antolatzen dituzte.

Gure ingurutik kanpo, Katalunian eta zehatzako [Mon Sant Benet monasterioan](#), ekoizle ugari batzen dituen azoka egiten da: lore, usainbelar, olio, ardo, garagardo, hestebete eta gozoki ekoizleak... Sasoiko produktuen doako dastatzeak, hainbat lantegi eta gidatutako bisitaldiak ere izaten dira. Oso erakargarria izaten da arratsaldeko baratze-bisitaldia, non bilketa egin ondoren, bertan sukaldatu eta dastatzeko aukera izaten den.

Barazkien mundua balioan jartzeko beste gizarte-bilgune formatu berezi bat Londresetik datorkigu. Hiri inguruko auzo batean utzitako orube bat lehenera ekarri zen elikagaiak eta hauekin lotutako jarduerak sortzeko asmoarekin. Behin-behineko okupazio honek izandako arrakastari esker, hurrengo urtean, [Urban Physic Garden](#)-a sortu zen: oraingo honetan, ingurune okupatu honetako protagonistak sendabelarrak izan ziren. Gaur egun landareen erreinua hiri mundura hurbiltzeko jarduera anitzeko zentroa da.

Mercados singulares

Tenemos multitud de mercados en nuestro entorno y fuera de ella también. En origen la mayoría de éstos provienen de la necesidad diaria de los agricultores por acercarse al casco urbano y vender sus hortalizas directamente. Pero con el tiempo **vamos viendo nuevos eventos y formatos** donde se realizan actividades de compra-venta, socialización y divulgación del medio rural y natural.

Una de las ferias más interesantes que suele celebrarse a comienzos de otoño y que este año cumplirá 20 añitos, será la **Feria Ecológica de Zerain**. En esta feria, además de haber puestos de productores ecológicos de todo tipo (horticultores, fruticultores, apicultores, ...) también podemos encontrar multitud de artesanos. Han solido celebrar talleres de huerta para niños, donde éstos tuvieron que preparar una porción de tierra y cuidarla hasta el año siguiente; también talleres para hacer cremas... Además la fundación [Zerain Dezagun](#) y Biolur Gipuzkoa se encargan de organizar toda una quincena de charlas previas a la feria.

Fuera de nuestro entorno, en el País Catalán y más en concreto, **en el monasterio de Mon Sant Benet**, se celebra una feria donde se juntan multitud de productores, tanto de flores, como de plantas aromáticas, aceite, vino, cerveza, embutidos, dulces... También suele haber degustaciones gratuitas de los productos de temporada y multitud de talleres y visitas guiadas. Suele ser muy atractiva la visita de la huerta al atardecer, donde tras la recolección, se cocina in situ, y como no, se degustan los productos.

Otro formato muy especial de encuentro social y de **poner en valor el mundo vegetal viene desde Londres**. En un barrio periférico de esta gran urbe se regeneró un solar abandonado, con el fin de generar un entorno adecuado para la producción de alimentos y actividades relacionadas con ésta. Tal fue el éxito de esta ocupación temporal que, el año siguiente, se creó el [Urban Physic Garden](#), donde, esta vez, las protagonistas de la ocupación de este entorno fueron las plantas curativas. Hoy por hoy es un centro de actividades diversas que ayudan a acercar el reino vegetal al mundo urbanita.